



Ezindu fisikoenganako sentsibilizazio eguna ospatu dute Alegian

OZTOPOAK ▶ Ezintasun fisikoren bat dutenen lekua hartu zuten atzo San Juan eskolako ikasleek

HITZALDIA ▶ «Gainditu beharreko oztopo asko daude», aitortu du Hilario Olano tetraplegikoak ▶ 5



Ikasleak, atzo. N. URBIZU



Bilgune Feminista «ezkor» azaldu da Emakumearen Egunaren atarian

TOLOSALDEA ▶ Plataformaren ustez, «prekarietateak emakume aurpegia du»; gaur batzarra egingo dute eta bihar, Emakumeen Nazioarteko Egunean, elkarretaratzera deitu dute, 20:00etan, Triangulo plazan. I. TERRADILLOS ▶ 2

LEITZA ▶

Ardoaren legea eta gutxiengo etnikoak hizpide osoko bilkuran

Larrainen mozioak «esku-hartze soziala» bultzatzea du helburu ▶ 7

ANOETA ▶

Udalak zazpi ildo estrategiko zehaztu ditu ekintza planean

«Garapen iraunkorra sustatzeko» helburu duten ekintzak jasotzen ditu ▶ 4

TOLOSA ▶

Amaroz elkartearen Merkatu Txikia

Nikaraguaren alde, Kultur Etxean ▶ 3

Osiñaga auzoa / Hernani 943 55 03 28
Asteazkenetik larunbatera gauz zabalik, larunbat eguerdian ere bai
www.iparragirre.com

GIZARTEA ▶

ESTI EZEIZA

Martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, Tolosaldeko Bilgune Feministak agerraldi bat egin zuen herenegun, non bi deialdi luzatu zituzten. Alde batetik, gaur, 19:30ean emakume batzarra egingo dute Kultur Etxean. Bestetik, bihar zortzietan elkarretaratzea egingo dute Triangulo plazan. Honez gain, bihar eta etzi bitartean mural bat pintatuko dute zezen plazaren kanpoaldean.

Emakumeen eskubide gutuna 2000. urtean abiatu zen, eta emakumeen mundu martxan du jatorria. Orduan mundu osoko 163 nazio eta 5.500 erakunde elkartu ziren emakumeen indarkeria eta pobrezia erakurteko, «mundu osoko emakumeen aldarrikapen feministak kontuan izan eta beste mundu bat eraikitzea posible dela aldarrikatu». Denek ere apustu bera egin zuten, emakumeen gutun bat adostea, gainontzekoei erakusteko. Bide horretan sortu zen Euskal Herriko emakumeen plataforma. Hala, bihar gutun hau aurkeztuko diete Tolosaldeko emakume guztiei, aldi berean, hauen ekarpenak jasotzeko asmoz.

Zazpi urte eta gero

Bilgune Feministak martxoaren 8 honetan ere, emakumearen egoeraren «irakurketa ezkorra» egiten du. Dena den, beraien ustetan, nabarmentzekoa da, «lan eremu berriak jorratuz eta gure generoari betidanik atxikitako betebeharrak espezi-koak zalantzan jarri, eskubideen lorpen eta aitortaren bidean sendo jarraitzen dugula». Bestalde, plataformako emakume guztiei dei egiten diete, bihar ez ezik, urteko gainontzeko 364 egunetan ere kalera ateratzeko, «herritar orok eskubide eta aukera berdinarak izan behar ditugula aldarrikatzeko. Azkenik, Tolosaldeko Bilgune Feministak eragileta herritar guztiei proposatzen die,

Martxoak 8 honetan ere «ezkor» ageri da Bilgune Feminista

Prekarietateak emakume aurpegia duela dio plataformak; batzarra antolatu dute gaur eta elkarretaratzea bihar



Tolosaldeko Bilgune Feministako ordezkariak herenegungo agerraldian. I. TERRADILLOS

«denok batera Euskal Herri berri eta justuago bat eraiki behar dugula, Euskal Herri feministak».

Aldarrikapenak

Prekarietateak emakume aurpegia duela diote Bilgune Feministak. Lan mundura aspaldi sartu baziren ere, lan esparruan sexuen araberako banaketak bizirik jarraitzen duela uste baitute. Bestalde, emakumeen aurkako indarkeria, sexuen arteko harremanen ierarkiak bizirik dirauenaren adierazle dela salatzen dute. Datuen arabera iazko erailketa

kasuek behera egin bazuten ere, erasotzaileen adina gazteak eta erasoetan erabiltzen den bortzikeriak Bilgune Feministako kideen kezka areagotzen du, «erasoen gorakadak, emakumeok aske eta segurtasunez ibiltzeko aukera ekiditen baitu».

Egiten duten salaketen artean beste bat da emakumeak ez direla bere gorputzaren jabe, eta ezin dutela honen inguruko erabaki askerik hartu. Horren adibide ipintzen dute, Euskal Herriko administrazio anitzetan erabiltzen diren aitzakia desberdinengatik emakumeek ezin dutela abortua bezalako

gaietan libreki erabakirik hartu.

Herenegungo agerraldian Bilguneok agertu zuten beste puntuetako bat, «emakumeok betidanik bizi izan dugun bigarren mailako herritar paperarena» izan zen. Honekin batera gaineratu zuten, «sistema patriarkal honetan, beharrrak bultzatuta gutxieneko kontzesioak egitera iritsi badira ere, gobernu, instituzio eta erakunde atzerakoiek ez dute kontutan hartzen sistema sozial osoa eta inoiz ez dute isilpean egiten den emakumeen lana errekonozitzen, ez eta eraldatzeko biderik ezartzen».

TOLOSA ▶

Tolosaren sustapen turistiko berria telebista bidez

ERREDAKZIOA

Telebista pribatu batek Tolosa proposatu du ondare turistikoaren zaintzagatik saria jasotzeko. Baina, Tolosa bezala, beste hainbat hirik ere izango dute aukera sari hori jasotzeko. Aukeraketa hori egiteko telebistan emango dituzte hiri hauen irudiak.

Tolosari dagokion erreportaiak gaur emittuko dute, 21:30ean. *Digital plus* dutenek 302 katetik ikusi ahaliko dute. *Via satelite* dutenek berri hispasat 12.092tik egin ahal izango dute. Bestalde, kate hauek eteko telebistan ikusteko aukera ez dutenek Tolosako ostalaritza eta merkataritza zentruetara joaz egin ahal izango dute.

TOLOSA ▶

Gorrei eta gorren familiei erantzunak emateko saioa

E. EZEIZA

Gainditzen, Tolosaldea eta Goierriko Gormutuen Elkarrekin antolatutako jardunaldien baitan, hitzaldia izango da gaur, 19:00etan, Tolosako Kultur Etxean. Bertan Guillermo Azkarate Maturana psikologo eta Arans-giko koordinatzailea mintzatuko da.

Hizketaldiaren helburua gorrei eta gorren familiei erantzunak ematea izango da. Beraz, lan horretan arituko da gaur arratsaldean, Azkarate.



Higiezin Agentzia

Pablo Gorosabel 40
1. solairua + 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Tel./faxa: 943 65 55 87
Sakelakoa: 669 368 994

Amasa. 124m2ko bi etxebizitza. Egoera oso onean. Altzari eta guzti.
Anoeta. Harrizko eraikuntzan baserria. Berritzeko. 90m2.
Alegia. Eraikuntza berriko pabilioiak. Azken bi modulua. 350m2koak.
Belautza. Pabilioia alokairuan, bulegoak, komunak eta abar.
Berrobi. Laugarren solairuan etxebizitza salgai. Berritua.
Berastegi. 2 solairuko pabilioia alokairuan, 700 m2 solairuko.
Legorreta. Baserria salgai, lurrekin. Informazio pertsonala.

Legorreta. Landa lurren 3 hektarea.
Lizartza. Etxe bifamiliar batentzako lurra, abeltzaintzarako ustaketarekin.
Lizartza. 900m2ko bi modulo salgai
Irura. San Migel plaza. Atikoa. 76 m2 erabilgarriak.
Irura. Etxezarreta; 3 logela, komuna, bainugela, altzariekin, garajea eta trasteleku duen etxebizitza.
Irura. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai Laskibar inguruan. Garaje eta trastelekuarekin.
Tolosa. Ugaren Goenak, baserria berritu beharrekoa. 3 solairuko.

Tolosa. San Esteban auzunean, kanpora begirako 100 m2ko etxebizitza salgai. Berritu beharrekoa.
Tolosa. San Frantziskon apartamentu altua. Logela bakarra. Guztia eraberritua. Ikuspegi ederrak.
Tolosa. San Frantzisko, 75 m2ko atikoa salgai. Eraberritzeko.
Tolosa. Pablo Gorosabel. 50 m2ko bulegoak alokairuan.
Tolosa. San Frantziskon etxebizitza. 90 m2koa, eraberritua, eguzkitsua.
Tolosa. Maituna zaharra. Azken 5 garaje ibixiak, 30m2tik aurrera. Karga

jasogailuekin sartzeko. Marxoan hasiko dira lanak.
Tolosa. Agintari kalea. Bi logelatako etxebizitza. Egonzela, sukalde eta komunarekin.
Tolosa. 89 m2ko etxebizitza salgai Zabalarretan. Hiru logela, garaje eta trastelekuarekin.
Tolosa. Santa Klaran, etxebizitza salgai, atzealdean lur sailarekin.
Tolosa. Zumalakarregi kalean 160 m2ko etxebizitza. Egoera oso onean.
Tolosa. Leixuga kalean eraberritutako atikoa.

ELKARTASUNA ▶

Igandera arte zabalik Nikaragua laguntzeko Merkatu Txikia

Amarozko elkarteak antolatuta, Kultur Etxean izango da, astegun arratsaldetan eta asteburuan egun osoan

ERREDAKZIOA

Aurreko asteetan material bilketa egin eta gero, abian da jada Amaro Auzo elkarteak urtero antolatzen duen Merkatu Txikia. Hain zuzen ere, atzo ireki zituen Kultur Etzeko ateak Merkatu Txikia hartzeko, eta igandera arte izango da zabalik. Ostiralera arte arratsalde irekiko dute, soilik, 16:00etatik 20:00etara, eta larunbatean eta igandean, berriz, zabalik izango da goizean ere, 10:00etatik 14:00ak arte.

Aurten Amaro Auzo elkarteak 85 emakumeren ikasketa eta prestakuntza plan bat hartzen dituen proiektua lagundu nahi dute. Hain zuzen, emakume talde hori, ekoizleak denak, Xochilt Acalt izeneko zentroan daude antolatuta, Nikaragua-ko zonalderik txiroenean, Larreinaga-Malpaisillon, non 25 komunitate dauden integratuta. Zentro horretan giza garapenerako proiektuak lantzen dituzte, eta helburua da emakumearen menpekotasun eta diskriminazioari aurre egitea, beren jabekuntzaren bidez.

Aurrera eramaten ari diren proiektuen artean, nabarmentzekoak dira generoari dagozkion trebakuntza prozesuak (gorputzaren banakako zainketa, sexu bortizkeria, sexu eta ugaltze eskubideak...), alfabetatze alorrekoak eta nekazaritzako prestakuntzak (nekazaritzako baliabideak lortu ahal



Nikaraguako Xochilt Acalt zentroko irudi bat. HITZA

izatea, ekoizpena eta komertzializazioa...). «Proiektu hone tan lagundu nahi ditugun 85 emakume horietatik 75ek lehen hezkuntzako ikasketak egingo dituzte eta beste 10ek Nekazaritzako Tekniken ikastaroa; horretarako aurrekontua 20.000 eurokoa da, eta Tolosa-ko Udalak 11.250 euro jarriko ditu, gainontzekoa Merkatu Txikiaren bidez lortu nahi dugu», azaltzen dute antolatzaleek.

Horrenbestez, Amaro Auzo Elkarteak elkartasuna eta laguntza eskatzen dizkie tolosar guzietei eta inguruko herritarrei ere, «emakume horiek

eta beren etxekoek etorkizun hobia eraikitzeak aukera izan dezaten».

Gainera, laguntzeko modu bat baino gehiago dago, Merkatu Txikiako produktuak erosiz, kaxetan dirua sartuz, edota kanpoaldean dagoen txosnan txorizo pintxo bat janez edo txokolate *solidarioa* hartuz, esaterako. Bestalde, modu horietara laguntzeaz gain, diru laguntzak ere eman daitezke, horretarako irekita dagoen kontu korrontea erabiliz: 2101 0081-15-0124 410788 (Kutxa).

Antolatzaleek alde zurretik eskertu nahi dute herritarrek emandako laguntza.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Autoa. Renault Express-a salgai SS-AV. ITV-a pasata. 1500 euro. Deitu 620 03 67 49 telefono zenbakira.

Furgoneta. Volkswagen Transporter-a salgai. 943 65 57 00 edo 685 73 68 81.

LANA

Sukaldaria. Asteburuetarako sukaldaria eta zerbitzaria behar dira. 615 78 90 06.

Tabernaria. Neska euskalduna behar da tabernarako. Astelehenetik ostiralera, 15:30etik 22:30era,

larunbat goizetan lana eta igandeak jai. Deitu 650 48 79 34 telefono zenbakira.

Zaintzailea. Asteasun emakumea behar da pertsona heldua zaintzeko. Deitu 616 95 57 95 telefono zenbakira.

Harreragile. Udalebeetarako. 943 44 48 66.

Gidaria. Erakunde publikoetarako. 943 44 48 66.

BESTEAK

Zakurra. Cocker marroia desagertu da Belauntzan. Telefono zenbakia: 658 70 43 18.

MUSIKA ▶

Musika festa asteburuan, Bonberenean

Etzi, 22.30ean Kabul eta Toil taldeak ariko dira Bonberenean. Kabul taldea Hondarribitik dator bere azken lana aurkeztera eta Toil, berriz, Oleretatik *Hildak Jaiotzen* aurkeztera. Kabul taldea Psilocibyna Records elkartearekin dauzka argitaratuta beraien lanak. Bestalde, Lisabó eta Stepi selekta DJ-a larunbatean martxoaren 10ean ariko dira, 22:30ean Bonberenean.

LITERATURA ▶

Tolosako leku izenen liburuaren aurkezpena

Tolosako leku izenak liburua bihar 20:00etan aurkeztuko dute udaletxeko batzar aretoan. Liburua egiten parte hartu dutenak han izango dira: Irma Goikoetxea, Juan Inazio Elosegi, Mikel Gorrotxategi (Euskaltzaindiako Onomastika batzordeko idazkaria), Juantxo Agirre (Aranzadi Elkarteko idazkaria) eta Onintza Laso (Euskara batzordeburua).

GIZARTEA ▶

Laskoraingo ikasle ohien afaria

1992. urtean, Ikastolaren 25. urteurrena zela eta, ikasle ohien lehenengo afaria antolatuta zen; 2004ko azaroaren 27an antolatuta zuten Tolosako Ferialekuan hurrengo afaria. «Arrakastatsua» izan zen. Aurten, Laskorain Ikastolaren 40. urteurrena denez, berriro ere afaria antolatuko dute. Maiatzaren 19an izango da, Tolosako Ferialekuan. Afariaren antolaketarako bilera irekia antolatuta dute, asteartean, hilaren 13an, 19:00etan Tolosako Kultur etxean.

TXOTX

Arratzain
Arratzain zahar baserria info@agroturismoarratzain.com
Tel.: 943 366 663 Usurbil

Oialume Zar
Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)
Tel.: 943 552 938 - 943 332 127 Astigarraga

Gartziategi
Gartziategi baserria
Tel.: 943 469 674 Astigarraga

Iparragirre
Osiñaga auzoa
Tel.: 943 550 328 Hernani

Urbitate
Ergoiena auzoa
Tel.: 943 180 119 Ataun

Gurutzeta
Oialume bidea, 63 (sarrera Ergobia auzotik)
Tel.: 943 552 242 Astigarraga

Akelenea
Oialume bidea 57
Tel.: 943 333 333 Astigarraga

Lizeaga
Gartziategi baserria, Martutene pas. 139
Tel.: 943 468 290 Astigarraga

Elutxeta
Oztaran auzoa 34, Elutxeta baserria
Tel.: 943 556 981 - 943 333 337 Urnieta

Rezola
Santio Zeharra
Tel.: 943 552 720 - 608 143 332 Astigarraga

Larre Gain
Larre-Gain baserria, Ereñozu auzoa
Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Inketa. Bihar Emakumeen Nazioarteko Eguna izango da mundu osoan. Horren harira galdera proposatu dizugu gure webgunean: «Uste duzu berdintasunean bizi direla emakumeak eta gizonak euren egunerokoa?» Zer uste duzu zuk? Sartu gure web orrian eta eman zure botoa! Zure iritzia ere sartu dezakezu, gainera botoarekin batera. ▶

ANOETA ▶ AGENDA 21

Zazpi ildo estrategiko zehaztu ditu Udalak ekintza planean

Herriko eta eskualdeko «ingurugiroa errespetatzeko eta garapen iraunkorra sustatzeko» ekintzak jasotzen ditu

ERREDAKZIOA

Anoetako Udalak, Agenda 21aren prozesuaren baitan, ekintza plana onartu du. Zazpi ildo estrategiko ezartzen dira dokumentuan, Anoetako eta eskualdeko «ingurugiroa errespetatzeko eta garapen iraunkorra sustatzeko».

Zazpi ildo estrategikoak ondorengoak dira: ingurumena kaltetu gabe, tokiko enplegua sustatzeko garapen ekonomiko bultzatu; biztanlearen ongizatea eta bizi kalitatearen hobekuntza solidarioa sustatu; hiri ingurunearen eta ingurumen zerbitzuen hobekuntza; bioaniztasuna eta paisaia babestu eta Udalerriko Gune eta Elementu esanguratsuenak ezagutarazi; herriko mugikortasun beharrak iraunkortasun irizpideekin ase; herriarekiko komunikazioa eta herritarren sentikortze eta parte-hartzea hobetu, eta azkenik, udal kudeaketa hobetu iraunkortasun irizpideak txertatuz.

Udalaren esanetan, «adostasun osoa lortu duen behin betiko dokumentu hau azken bi urteetan zehar elkarlanean garatu den lanaren ondorioa da». Ekintza Plana onartuta, Udalak Udalsarea 21 euskal sareari eskari bat luzatu dio Anoeta elkarrekin honetan onartua izan dadin. Udalak planteatzen duen hurrengo urratsa eskuduntza duten beste erakundeekin —Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia, Tolosaldea Garatzen, Tolomendi, Ernioaldeko Udaltalde 21 Mankomunitatea— ekintza desberdinez osaturiko

Urteko Ekintza Plana garatzea izango da. Urtero egingo du ekintza plana indarrean iraungo dituen lau urteetan. Ondoren zehazten dira Udalarentzat aipagarrienak diren ekintzak:

Etxebizitza. Ekintza zehatzak bezala, bertako herritarrentzat, batez ere gazteentzat, «etxebizitza berriak sustatuak izan daitezela» aipatzen da. Etxebizitzetan «akzesibilitatea eta mugikortasuna hobetzeko laguntzak sustatzea» ere aurreratu sten da.

AHT. Ekintza planak AHTren proiektua bere gain hartzen du «ingurumena kaltetu gabe, tokiko enplegua sustatzeko garapen ekonomiko bultzatu eta planteatzen den errealitate berria kudeatzea etekin handiena lortuz eta kalte gutxienez pairatuz» helburua lortze aldera. Udalak «Eusko Jaurlaritzak interes orokorraren izenean bultzatutako proiektu hau definituta duen bezain pronto udalei luzatzen zaien informazioaren berri herriari jakinarazteko konpromisoa du».

Hezkuntza. Ikastolarekin dagoen lankidetzari jarraituz, Eskolako Agenda 21a abian jarriko da, horren bitartez ikasleak «ekologiaren, garapen jasangarriaren inguruan, partaidetza garrantzia eta kontzientzia lortzea» bultzatu nahi da.

Euskara. Orain gutxi egindako neurketan Anoetan euskaren erabilerak 9 puntutan gora jo duela azaltzen du, %69a iri-

tsiz, eta bide honi jarraituz «emaitzak hobetzen jardun behar dela» uste dute. Zentzu honetan «euskaren erabileraren ordenantza onartu da, gure hizkuntzan egindako material promozionalak argitaratu, ikastolari, komunikabideei eta euskera ikasteko edo alfabetizatze ikastaroak jaso nahi dituztenei laguntzak eskaintzen jarraituko zaie.

Natur baldiabeak. Hauen mantenimendu eta aprobetxamenduari buruz, «uraren zikloaren hobekuntza» aipatzen da: ur-sarean pairatzen diren ur galerei aurre egitea, kalitatearen hobekuntza eta edangarria ez den ura beste erabilera batzuk emateko profitatzea. Hornikuntzaren hobekuntzarekin jarraituko da. Alor honetan «gertakari garrantzitsua» ur-depositu berria izan da.

Mugikortasuna. «Herri mobiliarioaren hobekuntzarako ekintzak martxan jartzea, gune berdeak sustatzea, mugikortasun eta sarbideen hobekuntzak egitea» proposatzen da. Udalaren enkarguz egindako Anoetako sarbideen plangintza landutako irizpideei jarraituz, udalerrian zehar sarreak eta mugikortasuna hobetuko dira.

Komunikazioa. Herritarrei zuzendutako informazioa eta komunikazio bideak abian jartzea. Esaterako, «Anoetak bere webgune propioa izateko nahia». Hori erantzuna «epe laburrera» emango zaio.

ANOETA ▶ KULTUR ASTEA

‘Amesgaizotik ez’ erakusketa kiroldegian

ERREDAKZIOA

Anoetako Kultur Astea aurrea doa. Besteak beste, atzo martxan jarri zuten *Amesgaizotik ez* erakusketa. Dagoeneko eskualdeko herri batzuetan izan da erakusketa hau, non hiri-hondakinen berreralbipenari buruzko informazio ugari biltzen duen.

Erakusketak, hiri-hondakinen bilakaera aztertzen duen ibilbide historikoa eskaintzen du eta lau kidez osatutako familia batek sortuko lituzkeen hondakinak berreraileak zer suposatuko lukeen azaltzen saiatzen da. Udalak, erakusketa horren bitartez, anoetarrek «hondakinen gutxitzea eta sortzen diren hondakinen birziklapen eta berreralbipenaren garrantziaz ardura hartzea» helburu du. Horretarako espazio hori hausnarke-

tarako gune bat izatea espero du.

Bestalde, Kultur Astearen egitarauaren baitan, atzo aurobiak eta batuka saioaren ondoren, gaur, 15:00etatik 17:00etara *Gure gorputzarekin bat egiteko espazioa* tailerra egingo dute kiroldegian.

Bihar bularrek minbiziari buruzko hitzaldia izango da, 15:30etik aurrera, Katxalin Elkartearen eskutik. Etzi Zuhaitz Eguna egingo dute. Horrela, 15:30ean, zuhaitzen landaketa egingo dute Ikastolako LH5 eta LH6 mailako ikasleek ur biltegiaren inguruan, eta gero merienda emango diete. Egun berean, 18:30ean, Eriz Magoaren emanaldia udaltxeko multimedia gelan. Larunbat arratsaldean zirkola eskola antolatuta dute plazan eta ondorengo txokolatada, Ateaga Elkarrekin prestatua.

ANOETA ▶ POLITIKA

Ezker abertzalearen batzarrean, 40 lagun



Batzarrean parte hartu zuten herritarrak. HITZA

ERREDAKZIOA

Anoetako ezker abertzaleak batzarra egin berri du eta pozik agertu da izandako parte-hartzearekin. «Hauteskundeak parte-hartze zabalarekin prestatzen ari gara eta horren adibide da larunbateko batzarrean ia 40 lagunek parte hartu izana», azaldu dute.

Ezker abertzaleak «benetako garrantzia» eman nahi dio herritarren parte-hartzeari. «Izan ere, 4 urte hauetan Udalen arduragabekeria eta utzikeriaren erruz herria eta Udalaren artean eman den urrutzea konpontzeko ezinbestekoa ikusten baitugu herritarren parte-hartzea bultzatu eta Udaleko erabaki gune-

tan herritarrei bideak irekitzea». Ezker abertzalea gustura daude «herritarren erantzun eta parte-hartzearekin» eta aurrerantzean ere «bakoi-tzak bere eremuan lanean jarraitzeko» deia luzatu dute.

Batzarrean, egungo egoera politikoa inguruko azalpenak eman eta ezker abertzaleak euskal lurraldeen batasunaren bidean Ipar Euskal Herriarako eta Nafarroarako herritarren parte-hartzearen inguruan hitz egin ondoren, hauteskundearen inguruan aritu ziren. «Herri proposamena osatuko duten gaiak errepasatu, parte-hartzaileen irizpideak entzun eta eztabaidatu ondoren», zerrendaren gaia ukitu zuten.

hirukidea

010 400 000
Tel. 943 475 440
943 475 440
943 475 440
943 475 440
www.hirukidea.org

KALITATEKO HEZKUNTZA

ALEGIA ▶ GIZARTEA

Oztopoak gaindituz

Alegiko San Juan eskolako ikasleek frontoian eta Kultur Etxean elbarri edo ezintasun fisikoren bat izanez gero egoera berriak ezagutu dituzte



Goian, keinuen bidez adierazten; behean, dastamena lantzen, eta eskuinean, ikusmenik gabe haurrak, oinez. N. URBIZU

HILARIO OLANO ▶ TETRAPLEGIKOAK

«Oztopoak leku askotan daude, gainditu beharreko asko»

Alegiko Kultur Etxean Hilario Olanok bere esperientzia azaldu zien San Juan eskolakoiei (Alegia, 1969). Moto istripu batean osatu gabeko tetraplegiarekin geratu zen, duela ia 5 urte.

Zer espero duzu esango dizutela haurrek?

Edozer gauza! Ez dakit. Hitzaldia ematen dudana lehen aldia da: telebistan aterata izan naiz noizbait. Hasieran urduritzen hasi naiz, ez pentsa.

Noiztik egoera berri honetan?

2002ko ekainan izan nuen moto istripuaz geroztik. Bartzelonan egon nintzen bi hilabetez ospitalean eta ondoren, errehabilitazioa egiten hasi nintzen. Berez, osatu gabeko tetraplegia daukat: besoak mugitu ditzaket, baina ez daukat indarrik. Hanketan sentsibilitatea daukat, baina eskuineko hanka ezin dut ia altxa.

Sentsibilitatea duzu, orduan?

Bai, gidatu ere egiten dut, baina hanketan izugarritzko mina ere sentitzen dut. Egunero 16



N. URBIZU

pastilla hartu behar izaten dit horretarako.

Zer moduz moldatzen zara?

Moldatzen naiz, baina zaila da. Oztopoak leku askotan daude, gainditu beharreko asko. Adibidez, kalean, etxebizitzetan igogailurik ez, zinemara joateko ere oztopoak... Leku askotan. Neure etxean ere, ospitale-tik iritsi eta 8 hilabetez bulegoko aulki batean izan nintzen, komunera joateko atea estue-

gia zelako: gurpil-aulkia ez zen sartzen...

Kirola egiten hasi zara.

Bai. Errehabilitazioarekin bukatu nuenean zerbait egin nahi nuen, eta kirolarekin hasi nintzen. Nik txirrindularitza egiten dut: besoekin pedalei eragiten diet. Bizikletak hiru gurpil dauka: bat aurrean eta bi atzealdean.

Kirol gogorra.

Bai, gogorra da. Pentsa: Valentzia (Herrialde Katalanak) ere nire lesio bera duten bi lagun ezagutzen ditut, eta kirol bera praktikatzen dute. Han laua da ia dena, eta ibiltzen dira. Hemengo lasterketetara etortzeko esan izan diedanena, ez dute etorri nahi izaten, oso gogorrek direlako probak: aldapatsuak.

Eta hurrengo erronka?

Hurrengoa, Behobia egitea. Iaz egin nahi izan nuen baina ez nuen ondo prestatu, gaixotu egin nintzen, ahula nengoen... Aurten helburua egitea da, ez denbora kontuan izanik, bai ziklari eta bukatzea. ◀



Zirkuito bat egiten. n. u.

tzen ditu jardunaldi berezi hauek. Haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako ikasleek, saio honekin itsuek, gorrek, nahiz gurpil-aulkiak behar dituztenek sentitzen dutenera hurbiltzen dira.

Honetarako, jolasak erabiltzen dituzte gehienetan: itsuarena egiten duenak, janaria dastatu eta asmatzearena, edo ibilbide bat egitea; gorrek, keinuen bidez zer adierazi nahi duen asmatu; gurpil-aulkikoek, berriz, ibilbide batzuk, edo pilotaekin ibili, saskibaloian adibidez. Alegikoek azken hau probatu ez bazuten ere, beste guztietan ederki asko ibili ziren. «Iaz ere antolatuko genuen, eta haurrek oroitza-pen politikak gordetzen dituzte», gogoratu zuten.

NEREA URBIZU

Gaur egungo gizartea ez dago oraindik jendearen aniztasunari erantzun egokia emateko prest. Istripuak eta ezustekoak egunero gertatzen dira, eta hauetan hildakoak ez badira, zorionez edo zoritxarrez, bizirik ateratzen diren horiek, bizitza guztirako gizarteak eskaintzen dituen oztoporen batekin egingo dute topo.

Alegiko San Juan eskolak bigarren urtez sentsibilizazio eguna, edo ezintasun fisikoren bat duenaren lekua egun batez hartzeko eguna antolatu zuten.

Gipuzkoako Kirol egokituko federazioari eta Kutzako Gazte-txoan elkarteari esker, *Berdintasunean bizi* lelopean antola-

Entzunez, sentsibilizazioa

Arratsaldean, Hilario Olanok alesiaren hitzaldia izan zen Kultur Etxean. Haurrek aditasunez entzun zituzten Hilario Olanoren hitzak: errealitate gordina, gazte honen istripuarekin lotutakoak, errehabilitazioa eta bizi berriari buruzkoak kontatu zituen. Ondoren, haurrek gaiari buruzko zalantzak argitzeko aukera izan zuten.

Haurrek txikitatik aniztasuna errespetatzeko eta kontzientzia aldetik arriskuari errespetua izateko beste ekintza bat izan da Alegiko San Juan eskolan egin dutena: sentsazio berriak, jolas moduan.



Berrobi - 3 logelako etxebizitza eguzkitsua.
Bista ederrak, atiko gela eta trastelekua.
34.800.000 pztz.
JM 657 770 085

ESKOLA EUSKALDUNA ETA PUBLIKOA
IKAS KOMUNITATEA

PEDRO M^a OTAÑO HERRI ESKOLA

Pagamuño auzoa, 16 - ☎ 943 6914 78 - **ZIZURKIL**
Posta elektronikoa: 012041aa@hezkuntza.net

BERROBI ▶ LIBURUTEGIA

Informatizazioa heldu da Berrobiko Udal Liburutegira

Begoña Olamusu liburutegiko arduradunak, 2006. urteko datuak aurkezteaz gain, aurten izango diren ekintza eta berrikuntzak jakinarazi ditu

ASIER IMAZ

Berrobiko Udal Liburutegiko arduradunak, Begoña Olamusu, 2006ko datuak aurkeztu ditu. Bazkideak eta maileguak goruntza joan ziren joan zen urtean. Datu hauek eskuan, «gustura» eta aurtengo urteari «gogotsu» aurre egiteko asmoz aurkitzen zen arduraduna. Informatizazioa Berrobiko liburutegira iritsi dela irrifarre artean esan ondoren, aurtengo urteko erronkak aztertu zituen Olamusuk. «Liburuak ordenagailuan sailkatzen hasi nintzen orain dela hilabete pare bat. Sailkaturiko hauek liburutegien arteko mailegu sarean



Berrobiko haurrak liburutegian antolatutako ekitaldi batean. HITZA

aurkitzen dira. Beste liburutegietatik hona edo gu euren gaina joan gaitzeko modu honekin liburu eskaerak egitera.

Txartel berriak ere egiten hasi gara, beste liburutegietan maileguak egiteko aukera ematen duten txartel berriak».

Eraitza berriekin gustura azaldu zen Olamusu. Mailegu kopurua aurreko urtetik %20 igo zen 2006an. 11 bazkide berri ere lortu zituen liburutegiak eta erabiltzaileen gehiengoa haurrak diren arren, gazteak urbiltzen ere hasi omen dira; «Poza berezia ematen du herriko gazteak etortzen direnean», dio arduradunak.

Azkenik, aurreko urtean bezala, aurten ere ekitaldi ezberdinak antolatuko dituztela jakinarazten digu Olamusuk, «aurreko urtean antolatutako ipuin kontalariak, Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna, literatur lehiaketa eta hainbat ekitaldik aurten ere jarraipena izango

2006KO DATUAK ▶

Erabiltzaileak	Kopurua
Helduak	821
Haurrak	1.294
Guztira	2.115

Sexua	Kopurua
Gizonezkoak	852
Emakumezkoak	1.263

Maileguak	Kopurua
Euskaraz	435
Erdaraz	87
Denera	522

Bazkideak	Kopurua
Berriak	11
Guztira	133

Fondoa	Kopurua
Euskaraz	1.860
Erdaraz	245
Guztira	2.105

dute». Apirilean izango da, esaterako, V. Literatur lehiaketa, asmo berriekin etorriko da gainera aurtengo edizioa, «dan irabazleak liburutegia batean elkartu nahi nituzke, gero argitaratuak izateko».

IBARRA ▶ POLITIKA

Bihar beteko dira 30 urte Guardia Zibilak Sebas Goikoetxea erahil zuenetik

Lehenbizi lore eskaintza egingo diote eta ondoren Aranen burutuko dute omenaldia

A. IMAZ

Bihar, Sebastian Goikoetxea Mariezkurrena, *Xebas*, ibartarri omenaldia egingo diote herritarrek. 19:45ean hilerrian lehenbizi lore eskaintza egingo diote eta ondoren Arane iturri-joango dira omenaldia burutera. Bertan Jostexo Jauregi eta Sebas beraren oroimenean bi zuhaitz landatu zituzten iaz,

Josetxoren heriotzaren 25. urteurrenaren barnean. Herritar talde batek, bihar hilerria azaltzeko deia luzatu du *Xebas* omendu nahi duten guztientzat.

Guardia Zibilak erahila

1977ko martxoaren 8an, Guardia Zibilak Itsason jarri zuen kontrol batetik pasatzean, *Xe-*



Xebas-en hileta ondoren, 1977. urtean, jendea kalera irten zen «eskubideen eta askatasunaren alde». HITZA

bas eta *Zaharra* zaldibiarra zihozten kotxea tirokatu zuten, heriotza emanaz biei.

Hilketak herrian oihartzun

handia izan zuen eta hiletetan jende ugari bildu zen. Hiletaren ondoren manifestazioa egin zen Ibaratik barrena, es-

kualdetik ere jende ugari kale-ratu zelarik Sebastian Goikoetxea, *Xebas*-i azken agurra ematera.

hilberriak ▶

Egoi Imaz Aranzadi

Larunbatean hil zen istripuz, Hernanin 19 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Golan bego-



Axular Lizeoko gelakideek ez zaitugu ahaztuko

DONOSTIA, 2007ko martxoaren 6a

HILBERRIAK
URTEURRENAK
ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN
120.000 IRAKURLE

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Anoeta. Eskulan ikastaroetan parte hartzen duten emakumeen lanekin egindako erakusketa Abulondo kultur etxean. Inaugurazioa, hilaren 7an 19.00etan.

Leitza. Nazioarteko emakumearen eguna kontuan izanik, 19:00etan *Emakumeok gure eskubideak borrokatuz* hitzaldia izango da EHBren eskutik, Aurreran.

Tolosa. 19:30ean Tolosako korrika batzordearen bilera izango da Lizardi Elkartearen.

Tolosa. 19:00etan, *Respuestas a la familia y a las personas sordas* hitzaldia eskainiko du Guillermo Azkarate Maturana psikologoak, Kultur Etxean.

Tolosa. Nikaraguako Malpaisillo herriko Xochilt Acañt emakume zentroaren aldeko merkatu txikia antolatu du Amarotzeko auzo elkarteak Kultur Etxean. 16:00etatik 20:00etara zabalik (larunbatean 10:00etatik 14:00etara ere bai).

ZINEMA

Alegia. 20:30ean, *Nilo txuria Piraguan* DVD emanaldia. 21:30ean *Sueño de una noche de invierno* filma Gaztebean.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Fernando Sanchez *Txorro* artista tolosarrak aurtengo Inauteriei buruzko argazki erakusketa dauka K-2 eta Asarre tabernetan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Areso. Goizueta, F. Loidi etxea. 112.
Tolosa. Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.

IRRATIA

Txolarre irrartia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZAren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
 20:00-21:00. *Irauli uhinak*.
 21:00-23:00. *Bide okerretik*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Jendeari eskuorriak banatu zizkieten aktoreek. E. EZEIZA



Jendeak harriduraz begiratzen zituen eskuorriak. E. EZEIZA

Harridura sortuz, erakarri

TOLOSA ▶ Kunka antzerki taldeak kale agerraldi umoretsua egin zuen atzo; etzi, 'Meando fuera del tiesto' lana aurkeztuko dute Leidor aretoan



'Meando fuera del tiesto' antzezlaneko hiru aktoreak kalean ibili ziren ohikua. E. EZEIZA

ERREDAKZIOA

Tolosako Triangulo plaza antzeztoki erraldoia batean bilakatu zen atzo arratsaldean. Izan ere, Kunka antzerki taldeko Josean de Miguel, Eloi Beato eta Gorka Aginagalde aktoreek, etzi Leidor aretoan 20:00etatik aurkeztuko duten *Meando fuera del tiesto* antzezlanerako giroa berotu aldera, kale agerraldi umoretsua egin zuten.

Jende ugari hurbildu zen antzezlan berezi hau ikustera, zeinak herriko bazter guztiak zeharkatu zituen. Euren umorea «umore garratza, salbajea eta ozpintsua» bezala definitzen dute. Hau baieztatuta nahi dutenek, aukera izango dute etziko emanaldian.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Izadi Lasa Nieto (Laskibar).
 Gaur urtebete. Muxu potolo bat ibarrako familiaren partetik.

URTE ASKOAN
 Irati Elosegi Insausti (Zizurkil).
 Muxu handi bat zure familiaren partetik bihurribo!

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza agurren tarte

Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...